



OSASUN ETA KONTSUMO

SAILA

Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza
Sanitarioko Sailburuordetza

*Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko
Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

Y CONSUMO

Viceconsejería de Calidad, Investigación
e Innovación Sanitaria

*Dirección de Gestión del Conocimiento y
Evaluación*

HILKORTASUNA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN

2009

Erregistro eta Osasun Informaziorako Zerbitzua
Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza
Osasun eta Kontsumo Saila

Laburpena

2009. urtean Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi diren pertsonen hilkortasunari buruzko informazioa aurkeztuko dugu, baita beste autonomia-erkidegoetan hildakoena ere. Pertsona horien banaketa egiteko, sexua, adina eta lurralde historikoa kontuan hartu dira, oinarrizko heriotza-arrazoia aldagai nagusi gisa erabiliz.

19.624 heriotza gertatu dira, 9.392 (%48) emakumezko eta 10.232 (%52) gizonezko. Arrazoi guztiak kontuan hartuta, hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 910. Horietatik 851 emakumezkoak dira eta 972 gizonezkoak.

Tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira biztanleriaren heriotza-arrazoi nagusiak EAEn, heriotza guztien %30, eta 100.000 biztanleko 276 eta 269ko tasa dute. Maiztasun-ordena kontuan hartzen bada, horien atzetik datoz arnas sistemako gaixotasunak (%9), 100.000 biztanleko 85eko tasa dutela.

Urtebetetik beherako haurren heriotza-tasa, aldiz, bizirik jaiotako 1.000 hurreko 3 heriotzakoa da; eta jaiotza-inguruko heriotza-tasa (hilik jaio direnak gehi bizitzako lehenengo astean hildakoak), guztira jaiotako 1.000 haurretik 6koa da.

EAEn, 2009. urtean, jaiotzean dagoen bizi-itzaropena edo batez besteko bizitza 85,7 urtekoa da emakumezkoetan eta 78,6 urtekoa gizonezkoetan. Beraz, emakumezko eta gizonezkoen artean 7 urteko aldeari eutsi egin zaio.

2009. urtean, honako hauek izan dira bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten heriotza-kausak, sexu bietan: Tumoreak (%47), kanpo-arrazoiak (%17) eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak (%17).

1986az geroztik, heriotza-kopurua jaisten joan da adin-talde guztietan, 65 urtetik gorakoetan izan ezik, igo egin baita. Izan ere, 2009an, emakumezkoen %89 eta gizonezkoen %78 hil egin dira, 65 urte baino gehiago zituztelarik.

2002-2010 Osasun Planean ezarritako hilkortasun-adierazleen egoera ere aurkeztuko dugu.

Materiala eta metodoak

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) hilkortasun-datuei buruzko informazioa bilatzeko informazio-iturri nagusiak honako hauek dira: Heriotzaren Ziurtagiri Medikoak / Heriotzaren Buletin Estatistikoak (HZM/HBE) eta Erditzeen Buletin Estatistikoak (EBE). Lehenengo agiri horien –berorietan jasotzen dira jaio eta 24 orduetik gora bizi izan ondoren hil diren kasuak– formatuak aldatu egin dira, bereziki heriotza-arrazoiei dagokienez, eta aurten jarri dira indarrean. Bigarren agirietan jasotzen dira, besteak beste, jaio eta aurreneko 24 orduetan hil direnak nahiz fetuaren heriotza berantiarrek (22 astetik gorako ernaldikoak edo 500 gramo baino gehiagoko pisua dutenak).

Heriotza ziurtatzen duen medikuak betetzen ditu HZM/HBE horiek. Heriotza gertatu den udalerriko Erregistro Zibilean erregistratzen da hildakoa, eta Estatistikako Institutu Nazionaleko (EIN) dagokion probintziako ordezkarietara bidaltzen da HZM/HBEa.

HZM/HBEak, Euskal Estatistikako Erakundearen (EUSTAT) bitartez, Osasun Saileko Hilkortasun Erregistrora heltzen dira eta, bertan, oinarrizko heriotza-kausa kodetzen da. Kodetze hori, halaber, Gaixotasunen Nazioarteko Sailkapenaren 10. berrikuspenak (GNS-10) ezartzen dituen irizpideak eta arauak kontuan hartuta egiten da (1).

2009. urtean EAEn bizi zen biztanleria kalkulatzeko –betetako adina, lurralde historikoa eta sexua kontuan hartuta–, EUSTAT Euskal Estatistikako Erakundeak emandako 2001eko zentsuaren eta 2006ko biztanleria eta etxebizitzari buruzko estatistikaren arteko estrapolazio lineala egin da (2. eranskina). Eman ditu, gainera, aldi horretan EAEn izandako jaiotzen datuak, ezinbesteko direnak haurren hilkortasun-tasak kalkulatzeko (3. eranskina).

Hona hemen kalkulatu diren hilkortasun-adierazleak: hilkortasun proportzionala, hilkortasun-tasak –gordinak eta adinaren arabera, estandarizazio zuzenaren bidez–, erreferentziako biztanleria gisa Europako biztanleria estandarra hartuta (2).

Haurren heriotza-tasaren (urtebetetik beherakoak) analisisian, hildakoen adina hiru alditan taldekatu da: jaioberri goiztiarra (7 egunetik beherakoak), jaioberri berantiarra (7 egunetik 28ra) eta jaioberri-ostekoa (28 egunetik urtebetera).

Hauxe da haurren heriotza-tasak kalkulatzeko izendatzailea: EAEn 2009 urtean bizirik jaiotakoak, guztira. Horretaz gain, jaiotza-inguruko hilkortasuna (22 astetik gorako ernaldia edo 500 gramo baino gehiagoko pisua izan eta hilik jaiotakoak) aztertu da, baita jaioberri aldi goiztiarrean hildakoak ere, eta hauxe da horien izendatzailea: jaiotako guztiak, bizirik jaiotakoak gehi 22 astetik gorako ernaldia izan eta hilik jaio direnak (1).

Bizi-itxaropena kalkulatzeko, Chiang metodoaren arabera (3) laburtutako bizitza-taularen kalkulua erabili da; 5 urteko adin-tarteak aintzat hartu dira, urte batetik beherakoa eta 1-4 urtekoa izan ezik.

Garaiz aurreko hilkortasunaren eragina balioesteko, Galdutako Bizitza Urte Potentzialak (GBUP) kalkulatu dira. Adierazle horretan jasotzen dira, hain zuzen, pertsona batek –zeina garaiz aurrean hil den, bere bizitzako lehen urtearen ostean– bizi izan ez dituen urteak, 70 urteak goiko mugatzat hartuta (4). Populazioak konparazioetan adinaren arabera banatzeak izan dezakeen eragina galarazteko, GBUPak doitu dira, adinaren arabera, Europako populazio estandarrean.

Txosten horretan aztertu da hilkortasunaren joera adinaren arabera, eta lau talde nagusitan banatu: 15 urtetik beherakoak, 15etik 34ra, 35etik 65era eta, azkenik, 65etik gorakoak, 1986-2009 aldian.

Tasen aldi baterako bilakaera aztertzeko, *Joinpoint regression* delako eredua erabili da, zeinak Urteko Aldaketaren Ehunekoa (UAE) eta balizko joerak baiestea ahalbidetzen duen(5).

Aurreko txostenetan bezalaxe, 2002-2010 Osasun Planean ezarritako hilkortasun-adierazleen egoera ere aurkeztuko dugu (6).

Emaitzak

1. Heriotza-kopurua eta tasak

2009. urtean, EAEn bizi ziren 19.624 pertsona hil dira. Horietako 570 beste autonomia-erkidego batzuetan hil dira. Erregistratutako heriotzak guztira hartuta, 9.392 (%48) emakumezkoei dagozkie eta 10.232 (%52), gizonezkoei.

EAEn hauxe da hilkortasun-tasa gordina: 100.000 biztanleko 909,6, eta sexuaren arabera 850,6 emakumezko eta 971,5 gizonezko. Adinaren arabera Europako populazioarekin estandarizatutako hilkortasun-tasa 100.000 biztanleko 348,6 da emakumezkoen kasuan eta 671,7 gizonezkoen kasuan. Lurralde historikoa kontuan hartzen bada, sexu bietan, honako tasa hauek ateratzen dira: 461,7 Araban, 497,8 Bizkaian eta 480,9 Gipuzkoan (1. taula).

1. irudian, azken hamarkadan (2000 - 2009) EAEn hilkortasun-tasek izan duten denboraren arabera bilakaera ikus daiteke, arrazoi guztiak eta sexua kontuan hartuta, eta adinaren arabera egokituta.

2. taulan eta 2. irudian, berriz, heriotza-kopurua eta adinaren arabera zehaztutako hilkortasun-tasak bildu dira. Tasa horietan, jaitsiera nabarmena izan da, bizitzako lehenengo urtearen ondoren 10-14 urteko taldera heldu arte emakumezkoetan, eta 5-9 urteko taldera arte gizonezkoetan; eta une horretan beherakada hasten da adinak aurrera egin ahala. 1-4 urteko adin-taldearen kasuan izan ezik, tasek gain-hilkortasuna adierazten dute gizonezkoetan, emakumezkoekin alderatuz gero; alderik handienak 25-29 urteko adin-taldean agertzen dira —gizon/emakume tasek arrazoia 4 da—, eta 60-64 urteko adin-taldean —arrazoia 3 da—.

2. Hilkortasuna, heriotzaren oinarrizko arrazoiaren arabera

3. irudian, gaixotasun-talde handien banaketa agertzen da, sexuaren arabera. Tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak izan dira, 2009. urtean, EAEko biztanleen arteko heriotza-arrazoi nagusiak, hau da, heriotza guztien %60. Maiztasun-ordena kontuan hartuta, honako hauek datoz atzetik: arnas sistemako gaixotasunak (%9), nerbio-sistemako gaixotasunak (%6), trastorno mentalak eta digestio-sistemako gaixotasunak (%5) eta kanpoko arrazoiak (%3).

Sexuaren arabera hauxe da banaketa: emakumezkoetan, zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira heriotza-arrazoi nagusiak (%32), eta ondoren tumoreak (%24), arnas sistemako gaixotasunak eta trastorno mentalak (%8), nerbio-sistemako gaixotasunak (%7) eta digestio-sistemako gaixotasunak (%5). *Gizonezkoetan*, ostera, tumoreak dira heriotza-arrazoi nagusia (%36), gero zirkulazio-sistemako gaixotasunak datoz (%27); eta jarraian beste hauek: arnas sistemako gaixotasunak (%10), digestio-sistemako gaixotasunak (%5), eta, azkenik, nerbio-sistemako gaixotasunak eta kanpoko arrazoiak (%4).

3.1 eta 3.2 irudietan, gaixotasun-talde handien banaketa ageri da, lurralde historikoa eta sexua kontuan izanda. 3. eta 4. tauletan (4A, 4B, 4C) hilkortasun-tasak ikus daitezke gaixotasun-talde handiak, sexua eta lurralde historikoa kontuan hartuta.

Adin-taldean eta sexuaren araberako heriotzak 5. taulan aurkezten dira. Urte bat baino gutxiago dutenen kasuan, jaiotza-inguruko eritasunak eta sortzetiko anomaliak dira sarrien gertatzen diren arrazoiak; bi horien baturak, adin-talde horretan gertatutako heriotza guztien %68 adierazten du emakumezkoen kasuan eta %77 gizonezkoen kasuan.

15-44 urteko emakumeen artean, tumoreak eta kanpoko arrazoiak (trafiko-istripuak barnean hartuta), dira heriotza-arrazoi nagusiak. 45-79 urtekoen taldean, tumoreak dira heriotzen lehen arrazoiak, eta bigarrena zirkulazio-sistemako gaixotasunak, baina bigarren arrazoi hori lehenengo postura igotzen da 80 urtetik aurrerako taldean.

15-44 urteko gizonezkoen artean, kanpoko arrazoiak dira heriotza-arrazoi nagusia, eta ondoren daude tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak. Emakumeen kasuan bezalaxe, tumoreak dira helduaroko heriotza-arrazoi nagusia 45-79 urtekoen artean, eta horien atzetik zirkulazio-sistemako gaixotasunak datoz. 80 urtetik aurrera, zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira heriotzen aurreneko kausa.

Hilkortasuna aztertzen badugu arrazoi espezifikoak eta sexua kontuan harturik (6. taula), ikus daiteke gaixotasun zerebrobaskularra dela (%9), emakumezkoetan, heriotzen lehenengo kausa, 100.000 biztanleko 28,7ko tasarekin, adinaren arabera Europako populazioarekin estandarizatuta. Bigarren tokian, trastorno mental organiko senilak eta presenilak daude (%7), 19,7ko tasarekin; eta, hirugarren tokian, kardiopatia iskemikoa (%6) —miokardioko infartu akutua (MIA) gehi bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk barne hartuta—, 100.000 biztanleko 19,4ko tasarekin. Jarraian, % 5arekin, bihotz-gutxiegitasuna eta Alzheimer-en gaixotasuna ageri dira, 13,5ko eta 13,3ko tasarekin, hurrenez hurren. Emakumeen hilkortasunaren %3arekin, bularreko tumore gaiztoa, gaixotasun hipertentsiboak eta diabetesa datoz, horien tasak, hurrenez hurren, honakoak direla: 100.000 biztanleko 16,5, 8,6 eta 8,0.

Heriotzen lehen arrazoiak, *gizonezkoetan*, zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa da (guztizkoaren %9),

Europako populazioarekin estandarizatutako tasa 100.000 biztanleko 64,2 duela, eta, ondoren, kardiopatia iskemikoa, 100.000 biztanleko 59,3ko tasarekin. Hirugarren tokian, gaixotasun zerebrobaskularrak (%6) daude, 40,3ko tasarekin; jarraian, %5arekin, biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK) dago, 100.000 biztanleko 31,6 tasarekin. Jarraian, maiztasun-ordenaren arabera, honakoak datoz: koloneko tumore gaiztoa (%4), trastorno mental organiko senilak eta presenilak (%3) eta prostatako tumore gaiztoa (%3), 100.000 biztanleko 23,7, 21,3 eta 20,5 tasa dutelarik, hurrenez hurren.

Lurralde historikoaren arabera, emakumeen kasuan, gaixotasun zerebrobaskularra da heriotza-arrazoi nagusia hiru lurraldeetan, Araba eta Bizkaian heriotza guztien %9 eta Gipuzkoan %10 eragiten baitu (7A taula); hona hemen gaixotasun zerebrobaskularren tasak, Europako populazioarekin estandarizatuta adinaren arabera: 100.000 biztanleko 26,5 Araban, 30,7 Bizkaian eta 26,3 Gipuzkoan. Bigarren tokian, Araba eta Gipuzkoan, trastorno mental organiko senilak eta presenilak (%7) daude, 18,3ko tasarekin, eta Bizkaian (%8), 20,9ko tasarekin. Hirugarrena, hiru lurraldeetan, kardiopatia iskemikoa da, %7 Araban eta %6 Bizkaia eta Gipuzkoan; tasa dute lurralde horietan, hurrenez hurren.

Gizonezkoetan (7B taula), kardiopatia iskemikoa eta zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa dira heriotzen lehenengo kausak Araban eta Bizkaian, %9ko maiztasuna dutela; eta tasak 100.000 biztanleko 56,4 eta 64,6 dira, kardiopatia iskemikoaren kasuan, eta 58,8 eta 68,8, biriketako tumore gaiztoaren kasurako. Heriotzen lehenengo kausa, Gipuzkoan, biriketako tumore gaiztoa da (%9), 100.000 biztanleko 59,0 tasarekin. Bigarrenik, kardiopatia iskemikoa (%8), 51,9ko tasarekin. Hirugarren tokian, Araban (%6),

EPOC delakoa dugu, 31,8ko tasarekin; eta beste lurralde bietan, gaixotasun zerebroaskularrak daude (%6), 40,4ko tasarekin Bizkaian eta 44,6 Gipuzkoan.

3. Haurren heriotza-tasa

2009. urtean, 64 heriotza gertatu dira urtebete baino gutxiago duten EAeko biztanleen artean; eta horrek esan nahi du haurren heriotza-tasa bizirik jaiotako 1.000 biztanleko 3,1ekoa dela. Lurralde historikoei begiratuz gero (8. taula), Bizkaia da tasarik altuenak dituen: 3,9/1.000 biztanleko. Bestalde, 9. taulan, haurren heriotza-tasaren datuak bildu ditugu, aldi batzuei dagozkienak, lurralde historikoen eta sexuaren arabera.

EAEn jaiotza-inguruko hilkortasun-tasa 6,0koa da guztira jaiotako 1.000 biztanleko. Bizkaia du tasarik altuena, 6,9/1.000ko, eta Arabak, baxuena, 4,0/1.000ko (10. taula).

4. Bizi-itxaropena

Jaiotzean dagoen bizi-itxaropena, edo batez besteko bizitza, EAEn 2009. urtean 85,7 urtekoa da emakumezkoetan eta 78,9 urtekoa gizonezkoetan. Araban dago bizi-itxaropenik handiena jaiotzean: emakumezkoen kasuan 86,0 urte eta gizonezkoen kasuan 79,7 urte. Ondoren, Gipuzkoa dator (85,6 urte emakumezkoetan eta 78,9 urte gizonezkoetan), eta atzetik Bizkaia (85,6 urte emakumezkoetan eta 78,1 urte gizonezkoetan).

Sexuaren arabera, bizi-itxaropenaren arteko aldea 7 urte ingurukoa da 44 urtera bitarte; eta adinak gora egin ahala, aldeak behera egiten du: 64 urtera bitarte 5 urtekoa da eta 2 urtekoa 85 urterekin (11. taula).

5. Galdutako Bizitza Urte Potentzialak

Azterketa egiten bada gaixotasun-talde handiak kontuan hartuta, *sexu bietan*, tumoreak (%47), kanpoko arrazoiak (%17), zirkulazio-sistemako gaixotasunak (%17), nerbio-sistemako gaixotasunak (%5) eta digestio-sistemako gaixotasunak (%4) izan dira, 2009. urtean, bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten heriotza-kausak.

Bizitza-urte potentzial gehien galarazi dituzten arrazoi espezifikoak 12. taulan bildu ditugu.

Emakumezkoetan, bularreko tumore gaiztoa nabarmentzen da: 2.073 bizitza-urte potentzial galdu dira eta 1,9/ 1.000ko izan da Europako populazioarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa. Atzetik datoz, maiztasun-ordenaren arabera, honako hauek: zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa (1.940 urte eta 1,8ko tasa); gaizki definitutako edo bigarren mailako tumore gaiztoak (810 urte eta 0,9ko tasa); suizidioak eta autolesioak (608 urte eta 0,6ko tasa); obulutegiko tumore gaiztoa (605 urte eta 0,6ko tasa); gaixotasun zerebrobaskularrak (570 urte eta 0,5ko tasa); eta koloneko tumore gaiztoa (548 urte eta 0,5ko tasa).

Gizonezkoetan, zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa dugu garaiz aurreko hilkortasun nagusi, 4.503 urte, eta Europako populazioarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa 4,2/1.000ko. Eta ondoren, honakoak: kardiopatia iskemikoa (3.428 urte eta 3,1ko tasa); suizidioak eta autolesioak (2.373 urte eta 2,3ko tasa); ibilgailu motordunek eragindako trafiko-istripuak (1.873 urte eta 2,1ko tasa); zirrosia eta gibleko gaixotasun kronikoak (1.498 urte eta 1,4ko tasa); eta gaixotasun zerebrobaskularrak (1.265 urte eta 1,2ko tasa).

Arabako emakumezkoetan, bularreko tumore gaiztoa da garaiz aurreko hilkortasun nagusia, Europako populazioarekin estandarizatutako tasa 2,3/1.000ko dela; jarraian daude obulutegiko tumore gaiztoa (225 urte eta 1,6ko tasa) eta biriketako tumore gaiztoa (208 urte eta 1,3ko tasa). *Bizkaian*, bularreko tumore gaiztoa da bizitza-urte potentzial gehien galarazten dituen (1.095 urte eta 1,9/1.000ko tasa); atzetik datoz biriketako tumore gaiztoa (973 urte eta 1,6ko tasa) eta gaizki definitutako edo bigarren mailako tumore gaiztoak (343 urte eta 0,7ko tasa). *Gipuzkoako emakumezkoetan*, alderantzizko ordena dago, biriketako tumore gaiztoa baita bizitza-urte potentzial gehien galarazten dituen (760 urte) eta, segidan, bularreko tumore gaiztoa (588 urte), 2,2 eta 1,7ko tasak dituztela, hurrenez hurren; hirugarren tokian, gaizki definitutako edo bigarren mailako tumore gaiztoak (333 urte eta 0,9ko tasa).

Gizonen artean, hiru lurraldeetan, zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa da garaiz aurreko hilkortasunaren eragile nagusia, Europako populazioarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa 1.000 biztanleko 3,7 izanik Araban (603 urte), 4,6 Bizkaian (2.588 urte) eta 3,7 Gipuzkoan (1.313 urte). Jarraian, Araban (553 urte) eta Bizkaian (1.258 urte), suizidio eta autolesioak datoz, 3,5 eta 2,4ko tasak dituztela; Gipuzkoan, ordea, trafiko-istripuek betetzen dute toki hori (605 urte), 2,2/1.000ko tasarekin. Hirugarren tokian, Araban, trafiko-istripuak ditugu (393 urte eta 3,0/1.000ko tasa); Bizkaian, bihotzeko beste gaixotasun iskemiko batzuk daude (1.123 urte eta 1,9ko tasa); eta Gipuzkoan, hirugarren tokian, gaixotasun zerebrobaskularrak (565 urte) eta suizidioak eta autolesioak ditugu (563 urte), bi gaixotasunek 1,7/1.000ko tasa dutelarik. (13A, 13B eta 13C taulak).

6. Hilkortasunaren bilakaera, adin-taldean arabera, 1986-2009

Adina lau talde handitan bildu da: 0-14 urte, 15-34 urte, 35-64 urte eta 65tik gorakoak.

Taulak 1. eranskinean ageri dira; berorietan bildu da adin-taldean, arrazoen eta sexuaren arabera hilkortasunaren bilakaera, EAEn, 1986tik 2009ra.

6.1. Hilkortasuna, 0 urtetik 14ra

Hilkortasuna, adin-talde honetan, %1,8koa zen nesketan eta %2,3koa mutiletan, 1986an; gaur egun, ordea, %0,4koa da nesketan eta %0,5koa mutiletan (14. taula).

Nesketan, urteko %4,6 jaitsi dira kausa guztiengatikoko hilkortasun-tasak. Jaiotza-inguruko afekzioak eta sortzetiko malformazioak dira ohiko kausak, eta nabarmen beheratu dira: %3,0 eta %5,5, hurrenez hurren. Ondoren, kanpoko kausak ditugu, hauek ere nabarmen beheratuta (urteko %4,9), eta tumoreak, era berean jaitsi direnak (urteko %2,5).

Mutiletan, urteko %5,5 jaitsi dira kausa guztiengatikoko hilkortasun-tasak. Nesken kasuan bezalaxe, jaiotza-inguruko afekzioak eta sortzetiko malformazioak daude aurreneko tokietan; mutilen kasuan, baina, gehiago beheratu dira tasak: urteko %3,8 eta %7,2. Kanpoko kausengatikoko hilkortasuna ere nabarmenki jaitsi da (%5,8); aitzitik, tumoreen tasetan egondako jaitsiera ez da garrantzizkoa, nesken kasuan ez bezala (1. eranskina: 1-7 taulak).

6.2. Hilkortasuna, 15 urtetik 34ra

Hilkortasuna, adin-talde honetan, %2,0koa zen emakumezkoetan eta %4,7koa gizonezkoetan, 1986an; gaur egun, ordea, %0,6koa da emakumezkoetan eta %1,3koa gizonezkoetan (14. taula).

Emakumezko gazteetan, nabarmen jaitsi dira kausa guztiengatiko hilkortasun-tasak; esaterako: 1986-1995 aldian, %4,0ko tasa egon zen; 1995-1998koan, %15,3; eta, azkenik, 1998-2009 sasoian, %5,3. Kanpoko kausak dira ohikoenak, eta nabarmenki apaldu dira: %3,6. Atzetik, tumoreak datoz; beheraldi garrantzitsua izan dute (urteko %1,8). Hirugarren tokian, gaixotasun infekziosoak (HIESa barne) ditugu; tasa horiek igoera nabaria izan dute (%27,5) 1986tik 1995era, baina hortik aurrera alderantzizko joera egon da (urteko %28,0). Beherakada handia izan dute, halaber, zirkulazio-sistemako (%3,7) eta digestio-sistemako gaixotasunek (%11,4).

Gizonezko gazteetan, desberdina izan da tasen bilakaera, aldi horretan. 1986tik 1992ra, igotze nabarmena egon da (urteko %8,3); urte horretatik aurrera, berriz, beherakada nabaria (urteko %8,3). Emakumezko gazteen kasuan bezala, kanpoko kausak dira heriotzen lehenengo arrazoia. Jaitsiera, baina, ez da berdintsua izan denboraldi guztian; izan ere, bi aldaketa aipatu behar dira: 1986tik 1991ra, %9,5 igo zen, eta 1998tik 2009ra, urteko %7,9 jaitsi. Bigarren tokian, gaixotasun infekziosoak ditugu. Tasek gorapen nabaria izan zuten 1991 arte (urteko %79,8), eta igotzen segitu zuten 1996 arte, nahiz eta azken igoera hori oso nabarmena ez izan. Baina, 1996tik aurrera, jaitsiera esanguratsua gertatu zen: urteko %50,1 jaitsi zen 1996tik 1999ra eta %16,8, 1999tik aitzina. Era berean, asko jaitsi ziren tumoreengatiko tasak (urteko %3,3), zirkulazio-sistemako gaixotasunak (urteko %4,5) eta digestio-sistemako gaixotasunak (ez da kasurik egon azken bi urteetan) (1. eranskina: 8-15 taulak).

6.3. Hilkortasuna, 35 urtetik 34ra

Hilkortasuna, adin-talde honetan, %14,9koa zen emakumezkoetan eta %31,8koa gizonezkoetan, 1986an; gaur egun, ordea, %9,7koa da emakumezkoetan eta %20,4koa gizonezkoetan (14. taula).

Emakumezkoetan, asko jaitsi dira kausa guztiengatiko hilkortasun-tasak; izan ere, bi aldaketa aipatu behar dira: 1986tik 1993ra, %2,7ko tasa izan genuen, eta 1993tik 2009ra, %1,1. Tumoreak dira kausarik ohikoenak, baina nabarmenkiro apaldu dira: %0,5. Ondoren, zirkulazio-sistemako gaixotasunak daude, %3,5ko jaitsiera izan dutelarik. Hirugarren tokian, kanpoko kausak; ez dira berdintsuak izan sasoi guztian: aurreneko urteetan, esaterako, gorapen txikia izan zuten, baina 1988tik 1993ra beherakada esanguratsua egon zen tasetan (urteko %9,8); berriz ere igo ziren tasak, ez asko, 1997ra arte, eta aurrerantzean, berriro, jaitsiera aipagarria gertatu zen (urteko %3,4). Beherakada handia izan dute, halaber, digestio-sistemako (%3,7) eta arnas sistemako gaixotasunek (%2,4).

Gizonezkoetan, urteko %1,8 jaitsi dira kausa guztiengatiko hilkortasun-tasak. Tumoreak dira heriotzen lehen kausa; tasak igo egin dira, ez asko, 1994 arte, eta urte horretatik aurrera nabarmen jaitsi dira (urteko %1,6). Segidan, zirkulazio-sistemako gaixotasunak eta kanpoko kausak ditugu; tasek behera egin dute nabarmenki: urteko %2,8 eta %2,0, hurrenez hurren. Digestio-sistemako gaixotasunak dezente apaldu dira; aipatzekoak dira bi aldaketok: 1986-1995 aldian, urteko %6,3 jaitsi zen tasa, eta 1995etik 2009ra, %2,3. Arnas sistemako gaixotasunek eragindako hilkortasun-tasak asko jaitsi dira 1995era arte (urteko %6,8); orduz geroztik, igoz joan dira, gehiegi nabarmendu gabe. Azkenik, gaixotasun infekziosoen tasek gora egin dute (urteko %17,3), 1986tik 1995era; ondoren, behera egin dute (urteko %6,1) (1. eranskina: 16-23 taulak).

6.4. Hilkortasuna, 65 urtetik 34ra

Hilkortasuna, adin-talde honetan, %81,2koa zen emakumezkoetan eta %61,3koa gizonezkoetan, 1986an; gaur egun, ordea, %89,4koa da emakumezkoetan eta %77,9koa gizonezkoetan (14. taula).

Emakumezkoetan, urteko %1,9 jaitsi dira kausa guztiengatiko hilkortasun-tasak. Zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira ohikoenak, eta asko jaitsi dira aldi guztian; aipatu beharrekoak dira bi aldaketa hauek: 1986tik 1996ra, urteko %2,9ko jaitsiera izan dugu, eta 1996-2009 aldian, %3,9koa. Atzetik, tumoreak datoz; beheraldi garrantzitsua izan dute, esaterako, urteko %1,0. Hirugarren tokian, arnas sistemako gaixotasunak daude, hauek ere jaitsiera nabaria izan dutela: urteko %1,8. Trastorno metalak dira heriotzen laugarren kausa; igoera aipagarria izan dute 1991n, urteko %20,0ko tasarekin. Digestio-sistemako gaixotasunak ere dezente apaldu dira (urteko %2,1); aitzitik, urteko %7,1 igo dira nerbio-sistemako gaixotasunak, baina 2003ra arte bakarrik.

Gizonezkoetan, kausa guztiek egin dute behera; esate baterako, 1986tik 1999ra, %1,4 jaitsi zen urteko tasa, eta 1999tik 2009ra, %2,3. Emakumezko gazteen kasuan bezalaxe, zirkulazio-sistemako gaixotasunak ditugu heriotzen lehen kausa; hemen ere bi datu aipatu behar: 1986-1997 aldian, %2,2 izan zen urteko tasa, eta 1997tik 2009ra, %3,7. Bigarren tokian, tumoreak daude, urteko %0,7ko tasa dutela. Jarraian, arnas sistemako gaixotasunak ditugu, 1999tik urteko %4 jaitsi direlarik, eta digestio-sistemako gaixotasunak; azken hauek bi aldaketa aipagarri izan dituzte: 1986tik 1992ra, jaitsiera esanguratsua egon da tasetan, urteko %6,1; eta 1992tik 2009 arte, %2,1koa izan da urteko beherakada. Nerbio-sistemako gaixotasunek gora egin dute; horri buruz, 1986-1997 aldia aipatzea merezi du, urteko %3,2 izan baitu. Trastorno mentalei dagokienez, gorabehera

batzuk egon dira aldi horretan. Izan ere, aurreneko urteetan, urteko %6,6ko igoera egon da, 1986tik 1995era; 1995tik 2007ra, berriz, tasak nabarmen jaitsi dira (urteko %1,8); eta, 2007tik aurrera, berriro ere igo dira, igoera garrantzizkoa ez izan arren (1. eranskina: 24-30 taulak).

7. Osasun Planeko adierazleen bilakaera, 2002-2010

Aurreko urteetan bezalaxe, 2009. urtean, hilkortasunarekin loturiko adierazleen egoera aurkezten dugu, 2002-2010 Osasun Planean definitutako egoera abiapuntu hartuta (19. taula).

Iruzkinak

2009. urtean, heriotza-kopurua %1 igo da, alegia, aurreko urtean baino 187 heriotza gehiago. Aldiz, adinaren arabera hilkortasun-tasa estandarizaturik 2008. urtean baino %1 txikiagoa da, biztanleria zahartzen ari den erakusgarri. Azken hamarkadan (1999-2008), urteko %1,9 jaitsi da tasa, batez beste, emakumezkoetan (% 95eko Konfiantza Tarte -2,2tik -1,7ra) eta %2,4 gizonezkoetan (% 95 KT -2,6tik -2,1ra).

Bi sexuetan, aurreko urteetan bezalaxe, tumoreak eta zirkulazio-sistemako gaixotasunak dira heriotza-arrazoi nagusiak oraindik ere. Tumoreengatiko heriotzen kopurua, guztira, %1,5 igo da, aurreko urteko datuekin alderatuta, baina datuak oso bestelakoak izan dira sexuaren arabera. Izan ere, emakumeen kasuan, %8 handitu da, eta Europako populazioarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa, %6; aldiz, gizonen kasuan, heriotza-kopurua %0,5 jaitsi da aurreko urtearen aldean, eta tasa, %1.

Emakumezkoen dagokienez, aurreko urteetan bezalaxe, bularreko tumore gaiztoa dago lehenengo tokian, heriotza-kopurua %3 handituta, baina adinaren arabera tasa estandarizaturik %6 jaitsita, 2007arekin alderatuz gero. Bigarren tokian, koloneko tumore gaiztoa dugu, kasu-kopurua eta tasa estandarizaturik %9 jaitsita. Jarraian, zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa dator, kasuen %5eko igoera duela, eta adinaren arabera estandarizatutako hilkortasun-tasan %6 duela. Gizonezkoetan, hilkortasun handiena eragiten duen tumorea zintzurresteko, bronkioetako eta biriketako tumore gaiztoa da oraindik ere, kasuen kopurua %3 jaitsi baita, eta tasa estandarizaturik, %4; horren atzetik koloneko tumore gaiztoa dago, zeinak, 2008. urtearekin alderatuz gero, %8ko beherakada izan baitu kasuen kopuruan eta %6, tasetan. Hirugarren tokian,

prostatako tumorea dugu; igo egin dira kasuen kopurua eta tasak, %5 eta %6, hurrenez hurren.

Zirkulazio-sistemako gaixotasunek eragindako heriotza-kopurua handitu egin da aurreko urtearekiko; Europako biztanleriarekin adinaren arabera estandarizatutako tasa, ordea, ez da batere aldatu. Tumoreen kasuan bezalaxe, aldeak sumatzen dira sexuaren arabera: emakumezkoetan, heriotza-kopurua %2 beheratu da, baita tasa ere, %4; gizonezkoen kasuan, %6 eta %4 igo dira heriotza-kopurua eta tasa, hurrenez hurren.

Emakumezkoetan, gaixotasun zerebrobaskularrak ditugu, ohi bezala, heriotzen lehen kausa, kasuen kopuruan %3 eta tasan %4 handituta; jarraian, kardiopatia iskemikoa dugu, kasu-kopuruan %3 eta tasan %1 jaitsita, 2008ko datuen aldean.

Gizonezkoen kasuan, kausen ordena alderantzizkoa da emakumezkoen datuekiko, eta aldaketa handiagoa izan da. Gaixotasun-talde horretan, kardiopatia iskemikoa da heriotza-arrazoi nagusia, kasu-kopuruan %17 eta tasa estandarizatuan %11 handitu baitu; atzetik, gaixotasun zerebrobaskularrak datoz, heriotza-kopuruan %4 igota eta tasa estandarizatuan %2 jaitsita, betiere aurreko urtearekin erkatuz gero.

Arnas sistemako gaixotasunak hirugarren tokian daude; kasuen kopuruan %5eko beherakada izan dute (%8 emakumezkoetan eta %3 gizonezkoetan), baita tasa estandarizatuan ere, %7koa (%7 emakumezkoetan eta %6 gizonezkoetan).

Trastorno mental senilek eta presenilek eragindako heriotza-kopurua %16 handitu da, baita %6 handitu ere Alzheimer gaixotasunak eragindako hilkortasuna, aurreko urtearen aldean.

Kanpoko kausetan, trafiko-istripuen hilkortasunak behera egin du, bai heriotza-kopuruan (%10), bai tasa estandarizatuan; suizidioengatiko hilkortasuna ere jaitsi egin da, %3, heriotza-kopuruan eta tasa, 2008. urtearekin alderatuta.

Aurten, handitu egin dira haurren hilkortasuna eta jaiotza-ingurukoa, 2008ko datuen aldean, %7 eta %18 hurrenez hurren. Bilakaera aztertu beharko da, igoera hobeto baloratzekotan.

Heriotza-kausa guztien ondorioz Galdutako Bizitza Urte Potentzialen (GBUP) zenbatekoa 17.993 da emakumezkoetan eta 39.456 gizonezkoetan; horrek esan nahi du %1eko jaitsiera gertatu dela emakumezkoetan eta %3koa gizonezkoetan, 2008ko datuekin erkatuz gero.

Ikertutako aldian, ageriko da biztanleriaren zahartzea, 65 urtetik gorako heriotza-kopuruak gora egin duelako (10.618 heriotza 1986an eta 16.367, 2009an). Hilkortasuna handiagoa da gizonezkoetan emakumezkoetan baino, adin-talde guztietan, 65 urtetik gorako taldean izan ezik, horretan emakumezko gehiago hiltzen baitira.

Adin-talde guztietan, nabarmen jaitsi dira heriotza-kausa nagusien hilkortasun-tasak ikertutako aldian, salbu 65 urtetik gorako taldean, non handitu baitira trastorno mentalek eta nerbio-sistemako gaixotasunek eragindako hilkortasun-tasak.

2002-2010 Osasun Planean proposatutako adierazle gehienak lortu egin dira. Aurten lortu ez diren adierazleen artean honakoak ditugu: emakumezkoetan, biriketako tumore gaiztoak eragindako

hilkortasuna; eta gizonezkoetan, tumore guztiek eta koloneko tumore gaiztoak eragindako hilkortasuna.

2009an, pixkanaka sartu dira HZM/HBE berriak. Aldaketa honek nolabaiteko eragina izan dezake bai medikuek egin beharreko ziurtapenetan bai heriotzaren oinarrizko kausa erabakitzekeo garaian, baina hori datozen urteetan aztertu beharko da.

Eskerrak eman nahi dizkiegu: Hildakoen heriotza-kausak ziurtatu eta gure galderei erantzuten dieten mediku guztiei eta, bereziki, datuak zehazteko informazio zehatzagoa ematen digutenei, alegia, auzitegiko medikuei eta obstetrei.

Erreferentzia Bibliografikoak

1. Organización Panamericana de la Salud. *Clasificación Estadística Internacional de Enfermedades y Problemas relacionados con la Salud*. Hamargarren berrikuspena. 1-3 liburukiak. Washington DC: OPS; 1996.
2. Dos Santos I. *Cancer Epidemiology: principles and methods*. International Agency for Research on Cancer, Lyon, 1999, 82. or.
3. Chiang CL. *The Life Table and its applications*. Malabar, Florida: Robert E Krieger Publishing Company, 1884.
4. Esteve J, Benhamou E and Raymond L. *Statiscal methods in cancer research. Descriptive Epidemiology*. Lyon: International Agency for Research on Cancer. Scientific Publications, 128. zk., 1994.
5. Kim HJ, Fay MP, Feur EJ, Midthune DN. Permutation tests for joinpoint regression with applications to cancer rates. *Stat Med* 2000;19: 335-51 (correction: 2001;20:655).
6. Osasun Saila. *Euskadirako osasun-politikak: 2002-2010 Osasun Plana*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 2002.
http://www.osanet.euskadi.net/r85-publ01/es/contenidos/informacion/publicaciones_informes_estudio/es_pub/publicaciones.html#plansalud

TAULAK

**1. taula . Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasak lurralde historikoaren eta sexuaren arabera.
EAE 2009**

	Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)
Álava-Araba	1.174	738,2	339,0	(317,2 ; 360,7)	1.320	833,1	611,9	(578,8 ; 645,0)	2.494	785,6	461,7	(442,6 ; 480,8)
Bizkaia	5.178	875,3	350,1	(339,3 ; 361,0)	5.687	1026,9	697,6	(679,1 ; 716,2)	10.865	948,6	497,8	(487,6 ; 507,9)
Gipuzkoa	3.040	859,8	349,3	(335,2 ; 363,5)	3.225	945,9	657,0	(634,2 ; 679,8)	6.265	902,0	480,9	(468,2 ; 493,6)
EAE	9.392	850,6	348,6	(340,6 ; 356,6)	10.232	971,5	671,7	(658,5 ; 684,9)	19.624	909,6	487,3	(480,0 ; 494,6)

* Gordina 100.000 biztanleko

** 100.000 biztanleko Europako populazio estandarrekin adinaren arabera estandarizatuta.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

2. taula. Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasak adin-taldearen eta sexuaren arabera. EAE 2009

Adina	Emakumeak		Gizonak		Bi sexuak		Tasa-arrazoia
	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	
<1	25	226,7	39	341,4	64	285,1	1,5
1-4	5	12,2	4	9,4	9	10,8	0,8
5-9	3	6,8	4	8,6	7	7,8	1,3
10-14	1	2,7	5	12,7	6	7,9	4,7
15-19	8	21,4	19	48,8	27	35,3	2,3
20-24	7	15,1	17	35,3	24	25,3	2,3
25-29	10	13,6	42	53,9	52	34,3	4,0
30-34	27	29,5	52	53,0	79	41,7	1,8
35-39	50	59,2	107	117,7	157	89,5	2,0
40-44	79	88,6	156	172,3	235	130,8	1,9
45-49	131	146,3	252	288,7	383	216,6	2,0
50-54	188	247,4	355	482,9	543	363,2	2,0
55-59	185	252,7	486	681,3	671	464,2	2,7
60-64	273	388,6	727	1.096,9	1.000	732,4	2,8
65-69	331	753,8	773	1.961,8	1.104	1.325,2	2,6
70-74	539	889,4	1.031	2.080,1	1.570	1.425,1	2,3
75-79	1.030	1.886,2	1.712	4.123,1	2.742	2.852,5	2,2
80-84	1.715	3.893,7	1.935	7.396,8	3.650	5.199,0	1,9
85 y +	4.785	13.196,0	2.516	18.343,5	7.301	14.608,7	1,4

* 100.000 biztanleko

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

**3. taula. Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasa arrazoi-taldearen eta sexuaren arabera.
EAE 2009**

Arrazoen taldeak	Emakumeak				Gizonak				Bi sexuak			
	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	172	15,6	7,0	(5,8 ; 8,2)	161	15,3	11,1	(9,3 ; 12,9)	333	15,4	8,8	(7,8 ; 9,9)
II Tumoreak	2.251	203,9	111,7	(106,5 ; 116,9)	3.699	351,2	250,5	(242,1 ; 258,9)	5.950	275,8	171,2	(166,4 ; 175,9)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast	58	5,3	2,0	(1,4 ; 2,6)	33	3,1	2,2	(1,4 ; 2,9)	91	4,2	2,1	(1,7 ; 2,6)
IV Gaix.endokrinoak	326	29,5	10,5	(9,3 ; 11,8)	230	21,8	14,3	(12,4 ; 16,2)	556	25,8	12,2	(11,1 ; 13,3)
V Trastorno mentalak	718	65,0	20,5	(19,0 ; 22,1)	364	34,6	22,8	(20,4 ; 25,2)	1.082	50,2	21,6	(20,3 ; 22,9)
VI Nerbio-sistemako gaix.	676	61,2	22,6	(20,7 ; 24,5)	438	41,6	27,3	(24,6 ; 30,0)	1.114	51,6	24,9	(23,3 ; 26,5)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	1	0,1	0,1	(-0,1 ; 0,2)	1	0,1	0,0	(0,0 ; 0,1)
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	3.026	274,1	97,0	(93,3 ; 100,8)	2.773	263,3	175,9	(169,2 ; 182,7)	5.799	268,8	131,0	(127,4 ; 134,6)
X Arnas sistemako gaix.	790	71,6	25,7	(23,7 ; 27,7)	1.051	99,8	63,6	(59,7 ; 67,6)	1.841	85,3	39,6	(37,7 ; 41,5)
XI Digestio-sistemako gaix.	449	40,7	16,2	(14,5 ; 17,9)	491	46,6	32,4	(29,4 ; 35,4)	940	43,6	23,4	(21,8 ; 25,0)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	17	1,5	0,5	(0,2 ; 0,7)	10	1,0	0,6	(0,2 ; 1,1)	27	1,3	0,5	(0,3 ; 0,8)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko ga	116	10,5	3,7	(3,0 ; 4,5)	53	5,0	3,2	(2,3 ; 4,1)	169	7,8	3,7	(3,1 ; 4,2)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	208	18,8	6,4	(5,5 ; 7,3)	214	20,3	12,8	(11,0 ; 14,6)	422	19,6	8,8	(7,9 ; 9,7)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	13	1,2	1,9	(0,9 ; 2,9)	24	2,3	3,3	(2,0 ; 4,7)	37	1,7	2,6	(1,8 ; 3,5)
XVII Sortzetiko malformazioak	10	0,9	1,1	(0,3 ; 1,8)	22	2,1	2,2	(1,2 ; 3,2)	32	1,5	1,6	(1,0 ; 2,2)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	349	31,6	10,7	(9,4 ; 11,9)	204	19,4	13,5	(11,6 ; 15,4)	553	25,6	12,2	(11,1 ; 13,3)
XIX Kanpoko arrazoiak	213	19,3	11,2	(9,4 ; 13,0)	464	44,1	35,9	(32,5 ; 39,4)	677	31,4	23,1	(21,2 ; 25,0)

*Gordina 100.000 biztanleko

** 100.000 biztanleko Europako populazio estandarrekin adinaren arabera estandarizatuta.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

4 A taula. Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasak arrazoi-taldearen eta lurralde historikoaren arabera. Emakumeak, EAE 2009

Arrazoen taldeak	Araba-Álava				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	27	17,0	7,8	(4,5 ; 11,0)	97	16,4	7,2	(5,5 ; 8,9)	48	13,6	6,2	(4,2 ; 8,3)
II Tumoreak	294	184,9	116,3	(101,7 ; 130,9)	1.198	202,5	106,7	(99,8 ; 113,6)	759	214,7	117,9	(108,4 ; 127,4)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast	9	5,7	1,9	(0,7 ; 3,2)	33	5,6	2,3	(1,4 ; 3,2)	16	4,5	1,5	(0,7 ; 2,2)
IV Gaix.endokrinoak	39	24,5	9,2	(6,2 ; 12,2)	182	30,8	10,6	(8,9 ; 12,2)	105	29,7	11,0	(8,6 ; 13,3)
V Trastorno mentalak	86	54,1	18,5	(14,6 ; 22,5)	411	69,5	21,4	(19,3 ; 23,5)	221	62,5	19,8	(17,0 ; 22,5)
VI Nerbio-sistemako gaix.	96	60,4	24,3	(18,9 ; 29,7)	361	61,0	22,0	(19,4 ; 24,5)	219	61,9	22,9	(19,4 ; 26,4)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	369	232,0	87,5	(78,0 ; 97,0)	1.752	296,2	104,9	(99,4 ; 110,3)	905	256,0	87,8	(81,6 ; 94,1)
X Arnas sistemako gaix.	77	48,4	20,6	(15,5 ; 25,7)	430	72,7	26,0	(23,2 ; 28,8)	283	80,0	26,9	(23,5 ; 30,4)
XI Digestio-sistemako gaix.	56	35,2	16,2	(11,4 ; 21,0)	250	42,3	16,1	(13,9 ; 18,3)	143	40,4	16,4	(13,3 ; 19,5)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	3	1,9	0,6	(-0,1 ; 1,2)	7	1,2	0,3	(0,1 ; 0,6)	7	2,0	0,6	(0,1 ; 1,1)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko ga	19	12,0	4,1	(2,2 ; 5,9)	49	8,3	3,3	(2,2 ; 4,3)	48	13,6	4,4	(3,1 ; 5,8)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	30	18,9	7,0	(4,4 ; 9,7)	110	18,6	6,3	(5,0 ; 7,6)	68	19,2	6,4	(4,7 ; 8,0)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	1	0,6	1,0	(-1,0 ; 3,0)	9	1,5	2,6	(0,9 ; 4,3)	3	0,9	1,2	(-0,2 ; 2,6)
XVII Sortzetiko malformazioak	3	1,9	2,6	(-0,4 ; 5,6)	4	0,7	0,7	(-0,1 ; 1,4)	3	0,9	1,0	(-0,3 ; 2,3)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	35	22,0	8,8	(5,6 ; 12,0)	181	30,6	10,2	(8,5 ; 11,9)	133	37,6	12,2	(9,9 ; 14,4)
XIX Kanpoko arrazoiak	30	18,9	12,7	(7,2 ; 18,1)	104	17,6	9,7	(7,5 ; 11,8)	79	22,3	13,2	(9,8 ; 16,6)

*Gordina 100.000 biztanleko

** 100.000 biztanleko Europako populazio estandarrekin adinaren arabera estandarizatuta.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestioko eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

4 B taula. Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasak arrazoi-taldearen eta lurralde historikoaren arabera. Gizonak, EAE 2009

Arrazoen taldeak	Araba-Álava				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	15	9,5	7,1	(3,5 ; 10,8)	89	16,1	11,9	(9,3 ; 14,5)	57	16,7	11,5	(8,4 ; 14,6)
II Tumoreak	472	297,9	227,9	(206,8 ; 249,0)	2.083	376,1	263,9	(252,0 ; 275,8)	1.144	335,5	239,1	(224,7 ; 253,4)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast	1	0,6	0,5	(-0,5 ; 1,4)	22	4,0	2,9	(1,6 ; 4,3)	10	2,9	1,7	(0,6 ; 2,8)
IV Gaix.endokrinoak	21	13,3	8,9	(5,1 ; 12,8)	116	21,0	13,9	(11,2 ; 16,5)	93	27,3	17,4	(13,7 ; 21,1)
V Trastorno mentalak	53	33,5	23,4	(17,0 ; 29,7)	212	38,3	24,7	(21,3 ; 28,2)	99	29,0	19,3	(15,4 ; 23,1)
VI Nerbio-sistemako gaix.	61	38,5	28,0	(20,7 ; 35,3)	255	46,1	29,1	(25,2 ; 33,0)	122	35,8	23,8	(19,4 ; 28,2)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	1	0,3	0,2	(-0,2 ; 0,7)
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	332	209,5	149,8	(133,4 ; 166,2)	1.533	276,8	181,2	(171,8 ; 190,6)	908	266,3	179,3	(167,4 ; 191,2)
X Arnas sistemako gaix.	147	92,8	61,8	(51,7 ; 72,0)	570	102,9	63,7	(58,3 ; 69,2)	334	98,0	64,6	(57,5 ; 71,7)
XI Digestio-sistemako gaix.	73	46,1	34,3	(26,3 ; 42,4)	270	48,8	32,5	(28,4 ; 36,6)	148	43,4	31,2	(26,0 ; 36,3)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	1	0,6	0,5	(-0,5 ; 1,4)	7	1,3	0,8	(0,2 ; 1,4)	2	0,6	0,5	(-0,2 ; 1,1)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko ga	13	8,2	5,4	(2,4 ; 8,5)	30	5,4	3,2	(2,0 ; 4,4)	10	2,9	2,2	(0,8 ; 3,6)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	36	22,7	15,3	(10,2 ; 20,5)	121	21,9	13,5	(11,0 ; 16,0)	57	16,7	10,6	(7,8 ; 13,4)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	2	1,3	1,9	(-0,7 ; 4,5)	17	3,1	4,7	(2,5 ; 7,0)	5	1,5	2,0	(0,2 ; 3,7)
XVII Sortzetiko malformazioak	1	0,6	0,3	(-0,3 ; 0,9)	16	2,9	3,2	(1,6 ; 4,9)	5	1,5	1,6	(0,2 ; 3,0)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	21	13,3	9,1	(5,1 ; 13,1)	90	16,3	11,2	(8,7 ; 13,6)	93	27,3	19,3	(15,3 ; 23,4)
XIX Kanpoko arrazoiak	71	44,8	37,5	(28,4 ; 46,7)	256	46,2	37,2	(32,4 ; 42,1)	137	40,2	32,9	(27,1 ; 38,7)

*Gordina 100.000 biztanleko

** 100.000 biztanleko Europako populazio estandarrekin adinaren arabera estandarizatuta.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

**4 C taula. Heriotza kopurua eta hilkortasun-tasak arrazoi-taldearen eta lurralde historikoaren arabera.
Bi sexuak. EAE 2009**

Arrazoi taldeak	Araba-Álava				Bizkaia				Gipuzkoa			
	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)	Kop.	Tasa*	Tasa**	(KT % 95)
I Gaix.infekzioso eta parasitarioak	42	13,2	7,5	(5,1 ; 9,9)	186	16,2	9,3	(7,9 ; 10,8)	105	15,1	8,5	(6,7 ; 10,3)
II Tumoreak	766	241,3	166,9	(154,4 ; 179,4)	3.281	286,5	173,2	(166,7 ; 179,7)	1.903	274,0	169,6	(161,4 ; 177,8)
III Odoleko gaix. eta immunitate-trast.	10	3,2	1,4	(0,5 ; 2,3)	55	4,8	2,6	(1,9 ; 3,4)	26	3,7	1,6	(1,0 ; 2,3)
IV Gaix.endokrinoak	60	18,9	9,3	(6,9 ; 11,7)	298	26,0	12,0	(10,6 ; 13,5)	198	28,5	13,8	(11,7 ; 15,8)
V Trastorno mentalak	139	43,8	20,4	(17,0 ; 23,8)	623	54,4	22,7	(20,9 ; 24,5)	320	46,1	20,1	(17,9 ; 22,4)
VI Nerbio-sistemako gaix.	157	49,5	26,5	(22,0 ; 30,9)	616	53,8	25,0	(22,9 ; 27,2)	341	49,1	24,0	(21,2 ; 26,8)
VII Begiko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
VIII Belarriko gaix.	0	-	-	- -	0	-	-	- -	1	0,1	0,1	(-0,1 ; 0,4)
IX Zirkulazio-sistemako gaix.	701	220,8	117,2	(108,1 ; 126,3)	3.285	286,8	137,3	(132,2 ; 142,3)	1.813	261,0	126,5	(120,3 ; 132,7)
X Arnas sistemako gaix.	224	70,6	35,9	(31,0 ; 40,8)	1.000	87,3	39,9	(37,2 ; 42,5)	617	88,8	40,6	(37,2 ; 44,0)
XI Digestio-sistemako gaix.	129	40,6	24,2	(19,8 ; 28,7)	520	45,4	23,5	(21,3 ; 25,7)	291	41,9	22,8	(20,0 ; 25,6)
XII Larruazal eta azalpeko ehun. gaix.	4	1,3	0,5	(0,0 ; 1,0)	14	1,2	0,5	(0,2 ; 0,8)	9	1,3	0,6	(0,2 ; 1,0)
XIII Sist.osteomuskular ehun.konj.ko ga	32	10,1	4,9	(3,1 ; 6,6)	79	6,9	3,2	(2,5 ; 4,0)	58	8,4	3,8	(2,8 ; 4,9)
XIV Sist.genitourinarioko gaix.	66	20,8	10,0	(7,5 ; 12,6)	231	20,2	9,0	(7,8 ; 10,3)	125	18,0	8,0	(6,5 ; 9,4)
XV Konplikaz.haurdunaldi,erditzean	0	-	-	- -	0	-	-	- -	0	-	-	- -
XVI Jaiotza-inguruko eritasunak	3	0,9	1,5	(-0,2 ; 3,1)	26	2,3	3,7	(2,3 ; 5,1)	8	1,2	1,6	(0,5 ; 2,7)
XVII Sortzetiko malformazioak	4	1,3	1,4	(-0,1 ; 2,9)	20	1,8	2,0	(1,1 ; 2,9)	8	1,2	1,3	(0,3 ; 2,2)
XVIII Gaizki definitutako arrazoiak	56	17,6	9,2	(6,7 ; 11,8)	271	23,7	11,1	(9,6 ; 12,5)	226	32,5	15,4	(13,3 ; 17,6)
XIX Kanpoko arrazoiak	101	31,8	24,9	(19,6 ; 30,2)	360	31,4	22,9	(20,2 ; 25,5)	216	31,1	22,6	(19,3 ; 25,9)

*Gordina 100.000 biztanleko

** 100.000 biztanleko Europako populazio estandarrekin adinaren arabera estandarizatuta.

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestio eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

5. taula. Heriotza-arrazoi nagusien kopurua eta tasak, adin-taldearen eta sexuaren arabera. EAE 2009

Adina	Emakumak			Gizonak		
	Arrazoiak	Kop.	Tasa*	Arrazoiak	Kop.	Tasa*
< 1	Jaiotza-inguruko eritasunak	13	117,9	Jaiotza-inguruko eritasunak	23	201,3
	Sortzetiko anomaliak	4	36,3	Sortzetiko anomaliak	7	61,3
	Nerbio-sistemako gaix.	3	27,2	Tumoreak	4	35,0
1 - 4	Nerbio-sistemako gaix.	1	2,4	Gaix.infekzioso eta parasitarioak	3	7,1
	Odoleko gaix. eta immunitate-trast	1	2,4	Tumoreak	1	2,4
		1	2,4	Sortzetiko anomaliak		
5 - 9	Tumoreak	2	4,5	Tumoreak	2	4,3
	Digestio-sistemako gaix.	1	2,3	Nerbio-sistemako gaix.	2	4,3
	Kanpoko arrazoiak			Kanpoko arrazoiak		
10 - 14	Kanpoko arrazoiak	1	2,7	Tumoreak	4	10,2
				Kanpoko arrazoiak	1	2,5
				Gaix.infekzioso eta parasitarioak		
15 - 19	Nerbio-sistemako gaix.	4	10,7	Kanpoko arrazoiak	11	28,2
	Tumoreak	3	8,0	Tumoreak	7	18,0
	Kanpoko arrazoiak	1	2,7	Gaix.infekzioso eta parasitarioak	1	2,6
20 - 24	Kanpoko arrazoiak	3	6,5	Kanpoko arrazoiak	10	20,8
	Tumoreak	1	2,2	Nerbio-sistemako gaix.	3	6,2
	Nerbio-sistemako gaix.	1	2,2	Zirkulazio-sistemako gaix.	1	2,1
25 - 29	Kanpoko arrazoiak	4	5,4	Kanpoko arrazoiak	21	26,9
	Tumoreak	4	5,4	Zirkulazio-sistemako gaix.	10	12,8
	Zirkulazio-sistemako gaix.	2	2,7	Tumoreak	6	7,7
30 - 34	Zirkulazio-sistemako gaix.	9	9,8	Kanpoko arrazoiak	26	26,5
	Kanpoko arrazoiak	8	8,8	Tumoreak	8	8,2
	Tumoreak	3	3,3	Zirkulazio-sistemako gaix.	7	7,1
35 - 39	Tumoreak	23	27,2	Kanpoko arrazoiak	41	45,1
	Zirkulazio-sistemako gaix.	11	13,0	Tumoreak	23	25,3
	Kanpoko arrazoiak	5	5,9	Zirkulazio-sistemako gaix.	18	19,8
40 - 44	Tumoreak	50	56,1	Kanpoko arrazoiak	49	54,1
	Zirkulazio-sistemako gaix.	7	7,9	Tumoreak	38	42,0
	Kanpoko arrazoiak	6	6,7	Zirkulazio-sistemako gaix.	30	33,1
45 - 49	Tumoreak	92	102,8	Tumoreak	104	119,1
	Zirkulazio-sistemako gaix.	10	11,2	Zirkulazio-sistemako gaix.	56	64,2
	Digestio-sistemako gaix.	9	10,1	Kanpoko arrazoiak	35	40,1
50 - 54	Tumoreak	123	161,9	Tumoreak	188	255,7
	Zirkulazio-sistemako gaix.	28	36,9	Zirkulazio-sistemako gaix.	63	85,7
	Digestio-sistemako gaix.	13	17,1	Kanpoko arrazoiak	32	43,5
55 - 59	Tumoreak	126	172,1	Tumoreak	266	372,9
	Zirkulazio-sistemako gaix.	25	34,2	Zirkulazio-sistemako gaix.	107	150,0
	Digestio-sistemako gaix.	9	12,3	Digestio-sistemako gaix.	30	42,1
60 - 64	Tumoreak	159	226,3	Tumoreak	424	639,7
	Zirkulazio-sistemako gaix.	43	61,2	Zirkulazio-sistemako gaix.	145	218,8
	Nerbio-sistemako gaix.	13	18,5	Digestio-sistemako gaix.	34	51,3
65 - 69	Tumoreak	170	387,2	Tumoreak	409	1.038,0
	Zirkulazio-sistemako gaix.	70	159,4	Zirkulazio-sistemako gaix.	180	456,8
	Nerbio-sistemako gaix.	20	45,6	Arnas sistemako gaix.	38	96,4
70 - 74	Tumoreak	233	384,5	Tumoreak	501	1.010,8
	Zirkulazio-sistemako gaix.	131	216,2	Zirkulazio-sistemako gaix.	226	456,0
	Nerbio-sistemako gaix.	35	57,8	Arnas sistemako gaix.	86	173,5
75 - 79	Tumoreak	346	633,6	Tumoreak	649	1.563,0
	Zirkulazio-sistemako gaix.	286	523,8	Zirkulazio-sistemako gaix.	488	1.175,3
	Nerbio-sistemako gaix.	89	163,0	Arnas sistemako gaix.	173	416,7
80 - 84	Zirkulazio-sistemako gaix.	587	1.332,7	Tumoreak	589	2.251,5
	Tumoreak	379	860,5	Zirkulazio-sistemako gaix.	567	2.167,4
	Nerbio-sistemako gaix.	153	347,4	Arnas sistemako gaix.	270	1.032,1
85 y +	Zirkulazio-sistemako gaix.	1.831	5.049,5	Zirkulazio-sistemako gaix.	851	6.204,4
	Arnas sistemako gaix.	529	1.458,9	Tumoreak	499	3.638,1
	Tumoreak	526	1.450,6	Arnas sistemako gaix.	400	2.916,3

* 100.000 biztanleko

Iturria: Hilkortasun Erregistroa. Ezagutzaren Gestioa eta Ebaluazioko Zuzendaritza. Osasun eta Kontsumo Saila.

**6. taula. Heriotza kopurua eta tasak arrazoi hautatuen eta sexuaren arabera.
EAE 2009**

GNS-10	Arrazoiak	Emakumeak		Gizonak		Bi sexuak	
		Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*	Kop.	Tasa*
A00-B99, R75	Gaix. infektzioso eta parasitarioak	172	7,0	161	11,1	333	8,8
A00-A09	Hesteetako gaix. infektziosoak	13	0,4	11	0,7	24	0,5
A15-A19, B90	Tuberkulosia eta efektu berantiarrek	9	0,3	15	1,0	24	0,6
A39	Infekz. meningokozikoa	1	0,2	1	0,1	2	0,2
A40-A41	Infekz. meningokozikoa	89	3,2	70	4,2	159	3,6
B15-B19	Hepatitis birikoa	23	1,0	14	1,1	37	1,1
B20-B24	HIESa	14	1,1	32	2,6	46	1,8
R75	GIBa	0	0,0	0	0,0	0	0,0
	Gainerako gaix. infektz. eta parasit.	23	0,8	18	1,3	41	1,1
C00-D48	Tumoreak	2.251	111,7	3.699	250,5	5.950	171,2
C00-C14	Ezpain, aho-barr. eta faringeko TG	31	2,0	91	6,6	122	4,1
C15	Hestegorriko TG	28	1,5	134	10,2	162	5,6
C16	Urdaileko TG	140	6,1	194	12,6	334	9,0
C18	Koloneko TG	204	9,2	364	23,7	568	15,3
C19-C21	Ond., sigmoid. junt. eta uzki TG	67	3,0	131	8,5	198	5,3
C22	Gibel, gibel-barn.behazun-hod. TG	83	3,5	175	12,1	258	7,5
C25	Pankreako TG	165	7,3	153	10,4	318	8,9
	Bestelako liseri-organoetako TG	76	3,1	79	5,2	155	4,1
C32	Laringeko TG	7	0,3	86	6,0	93	2,9
C33-C34	Zintzur., bronkio eta biriketako TG	200	13,5	929	64,2	1.129	35,9
	Arnas sist. eta torax-barn. best. TG	9	0,5	20	1,4	29	0,9
C40-C41	Hezur eta giltzadura-kartil.ko TG	8	0,3	8	1,1	16	0,8
C43	Larruazaleko melanoma gaiztoa	24	1,4	32	2,3	56	1,8
	Larruazal eta ehun bigun. best. TG	17	0,8	51	3,5	68	2,0
C50	Bularreko TG	309	16,5	4	0,2	313	9,2
C53	Umetoki-lepoko TG	26	1,5	0	0,0	26	0,8
C54-C55	Umetoki-lepoko best. alderdien TG	70	3,5	0	0,0	70	2,0
C56	Obulutegiko TG	96	5,8	0	0,0	96	3,1
	Emakumezkoen best. genitalen TG	40	1,8	0	0,0	40	1,0
C61	Prostatiko TG	0	0,0	326	20,5	326	7,5
	Gizonezkoen best. genitalen TG	0	0,0	11	0,8	11	0,4
C64	Giltzurruneko TG	39	1,9	69	4,4	108	3,0
C67	Maskuriko TG	51	2,0	178	11,0	229	5,6
	Bestelako gernu-bideetako TG	9	0,4	31	1,9	40	1,0
C71	Garuneko TG	86	4,8	75	5,7	161	5,3
	Best. TG. neurologikoak eta endok	14	0,6	12	1,1	26	0,9
C76-C80, C97	Gaizki defin. leku., leku sekund. TG	167	8,0	244	16,7	411	11,6
C81-C90, C96	Ehun linfoide eta org. hematop. TG	131	5,9	128	8,7	259	7,2
C91-C95	Leuzemiak	68	3,1	90	5,9	158	4,2
D00-D09	In situ tumoreak	0	0,0	0	0,0	0	0,0
D10-D36	T. onaireak	18	0,8	20	1,6	38	1,1
D46	Sindrome mielodisplasia	14	0,4	17	1,1	31	0,7
	Portaera ezezaguneko best. TG	54	2,4	47	3,2	101	2,7
D50-D89	Odoleko eta org. hematop. gaix.	58	2,0	33	2,2	91	2,1
D50-D77	Odoleko eta org. hematop. gaix.	56	1,9	28	1,9	84	1,9
D80-D89	Immunitatearen trast.	2	0,1	5	0,3	7	0,2
E00-E90	Gaix. endokrino nutrizionalak	326	10,5	230	14,3	556	12,2
E10-E14	Diabetes mellitus-a	255	8,0	186	11,2	441	9,4
	Guruin endok. gainerako gaix.	71	2,5	44	3,1	115	2,8
F00-F99	Trastorno mentalak	718	20,5	364	22,8	1.082	21,6
F00-F09	Trast. organiko senil eta presenilak	700	19,7	343	21,3	1.043	20,4
F10	Alkohol-abusuak sortutako trast.	0	0,0	13	1,0	13	0,5
F11-F16, F18,F19	Drogen abusuak sortutako trast.	0	0,0	2	0,2	2	0,1
	Bestelako trast. mentalak	18	0,8	6	0,3	24	0,6
G00-H95	Nerbio-sist. eta org. senti. gaix.	676	22,6	439	27,4	1.115	24,9
G00-G03	Meningitisa	3	0,4	2	0,2	5	0,3
G30	Alzheimer-en gaix.	451	13,3	185	10,5	636	12,4
	Nerbio-sist. eta org. best. gaix.	222	9,0	252	16,7	474	12,3

6. taula. (Jarraipena)

GNS-10	Arrazoiak	Emakumeak		Gizonak		Bi sexuak	
